

IRAGARKIAK

Beste iragarki ofizial batzuk

OSASUN SAILA

4289

IRAGARKIA, Donostiako farmazia-eskualdean (Gipuzkoa) farmazia-bulego bat eskualdatzeko proposamenari buruzkoa.

Farmaziak eskualdatzeko jardunbidea finkatzen duen martxoaren 16ko 166/1999 Dekretuaren 4. artikulua xedatutakoaren ildotik, Donostiako farmazia-eskualdean (Gipuzkoa) dagoen farmaziaren % 100 eskualdatzeko proposamen bat dagoela jakinarazten da.

Eskuratzeko interesa duten botikariek honako leku hauetan lortu ahal izango dituzte espedienteko argibideak, farmaziari, prezioari eta eskualdatzeko gainerako xehetasunei buruzkoak:

- Osasun Sailaren Arabako Lurralde Ordezkaritza, Olagibel kalea 38, Vitoria-Gasteiz.
- Osasun Sailaren Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritza, Antso Jakitunaren kalea 35, Donostia.
- Osasun Sailaren Bizkaiko Lurralde Ordezkaritza, Recalde zumarkalea 39, Bilbao.

Farmazia eskuratzeko eskabideak aurkezteko epea bi hilabetekoa izango da, iragarki hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunetik aurrera zenbatuta.

Farmazia eskuratzeko eskabideei 269,42 euroko tasa ezarriko zaie.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko irailaren 25a.

Farmaziako zuzendaria,
JON IÑAKI BETOLAZA SAN MIGUEL.